

## **Lehen urratsa: prozeduraren azalpena**

1. BEHAKETA ARIKETA. Identitatearen kutxa osatzen.

Aldez aurretik galdera sorta bat pasa genien zuzendaritza taldekideei eta egun batzuk eman genizkien galderen inguruan pentsatzeko eta erantzun moduan erabiliko zituzten objektuak kutxa batean biltzeko.

Hemen galderarekin batera egindako gonbidapena:

\_\_\_\_\_ Zuzendaritza taldekideei:

*Aurreko bilera batean adierazi genizuen moduan, ikerketa prozesuaren lehenengo urratsean klubaren istorioa (sorreraren kontakizuna) eta garapena jaso nahi ditugu. Era berean klubaren bereizgarriak diren ikurrak, sinboloak etabar ezagutzea da helburua. Horretarako lehenengo ariketa edo zeregin bat eskatu nahi dizuegu.*

*Behean informazioa jasotzeko prestatu dugun galdetegi laburra ikusiko duzue. Galdera horiek irakurri, pentsatu eta erantzuteko baliagarri izan daitezkeen objektuak edota bestelako elementuak aukeratzea eta kutxa batean biltzea eskatzen dizuegu. Galdera bakoitzarekin lotutako nahi adina objektu zein elementuak bildu ditzakezue: bat, bi, hiru...*

*Ondoren zita bat jarriko dugu eta zuengana joango gara aukeratutako objektuen berri izateko eta, horien bidez, galdetegia erantzuten joango gara.*

*Hemen dira identitate kutxa betetzeko gidalerro diren galderak:*

*1.- Imaginatu klubaren sorrera kontatu behar duzula liburu batean: zein objektu edo objektuak aukeratuko zenituzke istorioa ilustratzeko, adibidez, liburu horren azalean agertzeko?*

*2.- Imaginatu beste klub bateko ordezkari bati opari bat eman behar diozula zure klubaren izenean: zer aukeratuko zenuke? Zerk biltzen du klubaren izaera (ezaugarriak, berezitasunak, balioak)?*

*3.- Klubak lortutako garaipen oso garrantzitsu bat ospatu behar duzue: zein elementuk (objektuak izan edo bestelakoak -kantak, leloak...-) hartuko lukete protagonismoa?*

*4.- Imaginatu kirolarekin lotutako ekitaldi batera joan behar duzuela. Bertan beste klub asko egongo dira: zein elementu erabiliko zenuke klubeko kidea zarela erakusteko, zure klubeko ordezkari gisa agertzeko?*

*5.- Pentsatu lehiakide duzuen klub batek (zuekin konpetizioan aritzen den bat) aukeratu behar duela zuen kluba definitzeko elementu bat: zuen ustez, zein aukeratuko luke/lituzke?*

\_\_\_\_\_

Galdera hauek klubeko ordezkarietara bidali genizkien eta egun bat adostuko genuen eurekin batzeko eta bildutako objektuen inguruan aritzeko. Bilera hori grabatu genuen eta objektuen argazkiak ere atera genituen. Kasu honetan goian aipatutako galderak baliagarriak izan ziren bilkura horretarako gidoi gisa. Gure asmoa euren azalpenen eta objektuen zein bestelako elementuen berri jasotzea izan zen.

Gero ikerlari bakoitzak informazioa aztertu zuen eta elkarrizketa sakon bat prestatu zuen elementu garrantzitsuetan sakontzeko. Bigarren elkarrizketa honekin lotutako oharrak hurrengo puntuan zehazten dira.

## 2. ELKARRIZKETA SAKONA. Identitatearen kutxa murgilduz.

Elkarrizketa, aurreko dinamikak emandako informazioarekin prestatuko zen. Kasu honetan klub bakoitzari egokitutako gidodia diseinatu zen baina *Euskara, kirolkide* proiektuaren helburuei begira, elkarrizketetan oinarritzko ideia hauek jasota geratu ziren.

Hauek dira landu ziren ideia gakoak<sup>1</sup>.

### 1.- Klubaren historia.

- 1.1.- Historiaren papera klubean: zeinek gordetzen du historia, zeinek edota zerk ordezkatzeko du? Historia bakarra, ezberdinak? Historiak kezka eragiten ditu? Historia horren protagonistak.
- 1.2.- Klubaren historia gaur egun: zein papera du? Ba du? Zein momentutan hartzen du protagonismoa historiak?
- 1.3.- Historiaren sozializazioa: zabaltzen eta transmititzen da?
- 1.4.- Historia eta etorkizuna: historiak badu paper bat klubaren egungo egoeran eta etorkizunean?

### 2.- Klubaren identitatea eta ezaugarriak.

- 2.1.- Klubaren eraketaren prozesua, aldaketak, mugarrak eta protagonistak.
- 2.2.- Identitatearen ikurrak/sinboloak.
- 2.3.- Identitatearen sozializazioa: nola egiten gara klub batekoak?
- 2.4.- Klubak, identitatea eta egungo aferak (krisiak, zalantzak, aurreikuspenak...).

### 3.- Aldaketak eta eragileak.

- 3.1.- Klubaren ibilbidean izandako mugarrak: zeintzuk dira mugari horiek? Zein elementu, egoera... izan dira gakoak klubean gertatutako aldaketetan?
- 3.2.- Klubaren egoera (egun): diagnostiko laburra (ahuleziak eta indarguneak).
- 3.3.- Zer aldagaik, elementu eragiten dute gehien klubaren egoeran gaur egun?
- 3.4.- Aurreikuspenak: nola irudikatzen dugu kluba etorkizun gertu batean? Zeren baitan egon daiteke etorkizun hori? Zer paper izango du klubak?

---

<sup>1</sup> Gidoian modu esplizitoan agertzen ez bada ere, hizkuntzaren gaia (euskara) zehar lerroa izan zen elkarrizketa osoan zehar eta gai ezberdinekin lotuta.